

Datorren **urtarrilaren 28an** Judo erakustaldiak antolatuko ditugu Astigarragako kiroldegian eta, horretarako, zuen seme-alaben parte hartzea ezinbestekoa izango da. Hortaz, HH4ko haurretatik hasita, DBH bitarteko judokak deitu nahi ditugu erakustaldietan parte hartzera.

Honako hauek izango dira erakustaldien txandak eta ordutegiak:

| ordua | maila | taldea |
|--------------|--------------------|---|
| 09:30 | LH3 eta LH4 | Mundarroko judokak + Eskola kiroleko haurrak. |
| 10:15 | LH5 eta LH6 | Mundarroko judokak + Eskola kiroleko haurrak. |
| 11:00 | DBH | Judo taldearen erakustaldia. |
| 11:30 | HH4 | Judo taldearen erakustaldia. |
| 12:00 | HH5 | Judo taldearen erakustaldia. |
| 13:00 | LH1 eta LH2 | Ikastolako Judo taldearen erakustaldia. |

Ikusten duzuen bezala, talde asko izango ditugu egun horretan eta haur bakoitzari egokitu zaion orduan puntual-puntual egotea eskatzen dizuegu. Haur guztiek judogi osoa ekarri behar dute jantzita, ile luzea dutenek bilduta ekarri behar dute eta pultsera, lepoko eta belarritakorik gabe etortzea gomendatzen da.

Erakustaldia harmailetatik ikusi ahal izango duzue gurasoek eta erakustaldi bakoitzaren amaieran, irakasle batek haur taldea kiroldegiko harrerara hurbilduko du eta bertan jaso beharko dituzue zuen seme-alabak.

Besterik gabe, laster elkar ikusiko dugulakoan, agurtzen zaituztegu.

JUDOKO IRAKASLEAK